



## Emakume kaletarrak ezkondu aurreko despedidan

**Z**erk batu ete eben emakume-pillatxo hau? Zeintzuk diran ezagutu ondoren, gure ustez, euren arteko hartu-emuna argittu ahal izan dogu. Etziran danak kuadrilla bateko lagunak, edota talde eta idea berekuak, ezta edade bardiñekuak be. Alkar-ketako arrazoia ezkondu aurreko despedida bat izan zan. Nobixia erdiko illaran jarritta agiri dan hirugarrena dogu, **Maritxu Alberdi Oleaga**, orduan Kale Zaharrekoa; 1935ko otsaillaren 27xan Portaleku aldeko Auzabarriko **Joxe Altube Igartuarekin** ezkondu zan. Fotografixia lehentxuago ataratakua izango da.

Argazkiko batzuk **lagunak** edo **auzokuak** ziran, Kale Zaharrekuak batez be, baiña beste batzuk **familixakuak**: andrageixaren ahizpa, lehengusu edo senidiak, baitta nobixuaren arrebak be. Orain aitzakixa gutxi bihar izaten dogu bazkari, afari edo jaitxoren bat asmaitteko. Baiña sasue batian etziran hain sarri egitten, eta estimaziño haundixa eukitten euen halako juntadizo eta ospakizunak. Goittik behera eta ezkerretik eskumara honeitxek dittuzue kale aldeko emakumion izenak eta nundik norakuak:

Zutik goixan: **Maria Garai**, Kale Zaharrekoa, **Milagros Letamendi** alabatxua besuetan dakola; **Kasimira Kortabarria**, Kale Zaharreko *Bonbarduena*; **Maria Maiztegi**, Jaime Agirrerekin ezkonduko zana; honen aurrian **Martina Igartua**, San Antue kaleko *Frantsesiena*; **Maria Anjeles Ugarte**, plazako *Estanku Zaharrekoa*; **Dominga Arrazola**, *Kurtiderixakua*; X. X.; **Blankita Arana**, *Porrunekua*; atzian, **Dorotea Madinazkoitia**, Kale Zaharrekoa; honen aurrian **Maritxu Urtaza**, Kale BARRIKO *Kirriñena*; atzian **Benita Ugarte**, San Antue kaleko *Gaiñenekua*; honen aurrian, **Maria Anjeles Madinazkoitia**, Dorotearen ahizpia; **Joxepa Egaña**, Ximon Artzaren andria, Goribar auzokua; **Maria Jesus Baylo** [?], *Kuartelekua*; eta **Jesusa Elorza**, joskiña.

Erdixan jarritta: **Maritxu Ibarrondo**, Kale BARRIKUA; **Elisa Alberdi**, Kale Zaharrekoa; **Maritxu Alberdi**, nobixia eta aurrekuaren ahizpia; **Jesusa Altube**, *Auzabarrikua*; eta **Karmen Altube**, Jesusaren ahizpia.

Lurrian jarritta: **Sabina Ibarrondo**, Kale BARRIKUA; **Ines Urzelai**, Kale Zaharrekoa; **Ines Ibarrondo**, Maritxu eta Sabinaren ahizpia; eta **Maritxu Artza**, Joxepa Egañaren alabia.

J. E.

Fotografixia Artza familixiak gordetakua da eta guri Xabier Zelaiaren bittartez heldu xaku. Argibidiak Milagros Madinazkoitia, Rexu Letamendi, Jabi Altube, Mari Karmen Madina, Ana Mari Igartua, Mari Jose Ibarrondo eta Karlos de los Santosek samurtu eta osotu doskue. Milla esker danoiri!